



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

## Latina II

USE 2024

[www.ehu.eus](http://www.ehu.eus)



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIKOA

**LATINA II**

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO  
A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**LATÍN II**

***Ez ahaztu azterketako orrialde guztietan kodea jartzea.***

- Proba idatzi honek 2 multzo ditu (A eta B): **biak** egin behar dituzu.
- A multzoan 2 ariketa daude (A.1 eta A.2): horietako **1 bakarrik** egin behar duzu.
- B multzoan 3 galdera nagusi daude eta horietako bakoitzak hainbat aukera ematen ditu: **3 galderei** erantzun behar diezu, baina horietako **bakoitzean aukera bakar 1** hartu behar duzu.

**OHARRA:** Latin-hiztegi batzuek **gramatika-eranskin bat** izaten dute (deklinabideen eta adizkien taulekin, eta abar). **Zilegi izango da erabiltzea**, hiztegiarekin batera, dela eranskina hiztegiaren orrialdeetan dagoela, dela liburuxka solte gisa dagoela. Bestalde, nahi duenak **bi hiztegi** erabil ditzake batera: bat latina-gaztelania eta beste bat latina-euskara.



**A MULTZOA: Itzulpena eta hari buruzko galderak**

Multzo honek bi aukera ditu (A.1 eta A.2) eta bakoitzak 7 puntu balio ditu: horietako **bakar bat** aukeratu behar duzu.

**A.1**

**1. galdera:** Itzul ezazu testu hau (hiztegia erabiliz): 5 puntu

*Zesar prest dago belgen kontra borrokatzeko; baina haietako batzuek (remoek) jakinarazi diote ez dutela ezer erromatarren aurka.*

Remi<sup>1</sup> legatos ad Caesarem miserunt ut dicerent se suaque omnia in fidem atque in potestatem eius<sup>2</sup> permittere<sup>3</sup>, neque se cum Belgis reliquis consensisse neque contra populum Romanum coniurasse et paratos esse imperata facere. (Caes., Gall., II, 3).

**Oharrak**

- 1) *Remi*, -orum: 'remoak', antzinako Belgikako herrietako bat
- 2) *eius*: hau da, Zesar
- 3) *permittere*: 'norbaiten eskuetan utzi zerbait'

**2. galdera:** Egizu *Remi ... permittere* esaldiaren analisi sintaktikoa, esaldi hori osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz. 1 puntu

**3. galdera:** Egizu *consensisse* eta *imperata* hitzen analisi morfoloikoa. 1 puntu

**A.2**

**1. galdera:** Itzul ezazu testu hau (hiztegia erabiliz): 5 puntu

*Pirro, Epiroko erregea, gerran dago erromatar armadaren aurka; armada horren buru Fabrizio da.*

Tum medicus Pyrrhi regis nocte ad Fabricium venit et promisit se dominum suum occisurum esse<sup>1</sup> si sibi<sup>2</sup> aliquid polliceretur. Fabricius iussit medicum ad Phyrrum reduci<sup>3</sup> et regi dicere quid ille<sup>4</sup> contra regem spondisset<sup>5</sup>. (Ørberg, II, 188).

**Oharrak**

- 1) *occisurum esse*: *occido* aditzaren geroaldiko infinitiboa: 'hilko zuela'
- 2) *sibi*: hau da, medikuari



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

**LATINA II**

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO  
A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**LATÍN II**

3) *reduci*: *reduco* aditzaren orainaldiko infinitibo pasiboa

4) *ille*: hau da, medikuak

5) *spopondisset*: *spondeo* aditza

**2. galdera:** Egizu *promisit ... esse* esaldiaren analisi sintaktikoa, esaldi hori osatzen duten sintagmak eta perpausak identifikatuz. 1 puntu

**3. galdera:** Egizu *polliceretur* eta *regi* hitzen analisi morfologikoa. 1 puntu

2024



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIKOA

**LATINA II**

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO  
A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**LATÍN II**

### **B MULTZOA: Galdera teorikoak**

Multzo honek 3 galdera nagusi ditu, eta bakoitzak puntu bat balio du; galdera nagusi bakoitzaren barruan hainbat aukera daude: aukera horietako bati bakarrik erantzun behar diozu kasu bakoitzean.

#### **1. galdera** (aukeratu 1 bakarrik):

- a) Adierazi zein diren latinezko *filium* eta *fervorem* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin horiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
- b) Adierazi zein diren latinezko *clavem* eta *collocare* hitzekin zerikusia duten gaztelaniazko terminoak (gaztelaniaren ondare lexikoari dagozkionak izan zein kultismoak izan), eta egin horiei buruzko iruzkin bat. Zer bilakaera fonetiko izan dute latinetik gaztelaniara pasatzean?
- c) Adierazi euskarazko zer hitz ezagutzen dituzun latinezko *hortum* eta *rationem* terminoekin zerikusia dutenak, eta egin horiei buruzko iruzkin bat.
- d) Adierazi euskarazko zer hitz ezagutzen dituzun latinezko *regem* eta *plumam* hitzekin zerikusia dutenak, eta egin horiei buruzko iruzkin bat.

#### **2. galdera** (aukeratu 1 bakarrik):

- a) Erromatar antzerkia: Plauto eta Terentzio
- b) Latindar historiografia (Zesar, Salustio, Livio, Tazito)

#### **3. galdera** (aukeratu 1 bakarrik):

- a) Itzul itzazu latinezko esaldi hauek, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat:

*Facta non praesumuntur sed probantur*

*Ab illo tempore*

*Legum omnes servi sumus ut liberi esse possimus*

*In dubio pro reo*



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO  
EBALUAZIOA

2024ko EZOHIOA

**LATINA II**

EVALUACIÓN PARA EL ACCESO  
A LA UNIVERSIDAD

EXTRAORDINARIA 2024

**LATÍN II**

b) Itzul itzazu latinezko esaldi hauek, edo/eta egin ezazu haiei buruzko iruzkin labur bat:

*Nemo esse iudex in sua causa potest  
Ignorantia legis neminem excusat  
Cessante ratione legis, cessat lex  
Cogitationis poenam nemo patitur*

c) Zer iruditu zaizu Plautoren *Miles gloriosus* obra? Iritzia argudiatzean, eman itzazu xehetasun batzuk, obra irakurri duzula frogatzeko.

2024



## CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK

### LATINA II

#### A multzoa

1. **galdera:** Latinezko testua gaztelaniara edo euskarara itzultzea, hiztegia erabiliz.

- Gehienez, 5 puntu.
- Hauek balioetsiko dira: latinezko testuaren edukia ulertzea, kontzeptuak xede-hizkuntzara itzultzeko gaitasuna eta itzulpenak erakustea latin-gramatika ezagutzen duela.

2. **galdera:** Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoa.

- Gehienez, puntu bat.
- Analizatu behar dira, bai esaldi osoaren egitura nagusia, bai esaldi horretako elementu bakoitzaren funtzio sintaktikoa.

3. **galdera:** Adierazitako hitzen analisi morfologikoa.

- Gehienez, puntu bat.
- Kasuaren arabera, izen-jokoaren (generoa, numeroa eta kasua) edo aditz-jokoaren (pertsona, numeroa, denbora, modua eta boza) bereizgarriak zehaztu behar dira, betiere kontuan izanda hitzak testuinguru horretan duen balioari bakarrik dagokiola galdera (adib.: zer den «hoc» aurrean dugun testuan, eta ez zer izan daitekeen «hoc» testuingurua kontuan hartu gabe).

#### B multzoa

1. **galdera:** Lexikoari eta fonetikari buruzko galdera. Latinaren lexikoak gaztelanian edo euskaran izan duen eragina.

- Gehienez, puntu bat.
- Hauek balioetsiko dira: kultismoen eta ondare-hitzen artean bereiztea (gaztelaniaren kasuan) eta hitz bakoitzari dagozkion lege fonetikoaren azalpena (bi kasuetan).

2. **galdera:** Latindar literaturaren historiari buruzko galdera.

- Gehienez, puntu bat.
- Galderan aipatzen den literatura-generoa definitu behar du ikasleak, eta genero horren barruan sartzen diren egileari edo egileei buruz dakiena azaldu (batez ere, literatura-genero horri dagozkion obrei buruz jardunez).

3. **galdera:**

- **a edo b aukera:** Egungo hizkuntza jasoan erabiltzen diren latinezko lokuzioak eta latin juridikoaren alorreko esaldi eta esaerak:
  - Gehienez, puntu bat.
  - Esaldien itzulpena edota iruzkin labur bat eskatzen da.
- **c aukera:** Obra latindar baten irakurketa:
  - Gehienez, puntu bat.
  - Galderaren helburu bakarra da jakitea ea ikasleak eskatu zaion obra irakurri duen; horretarako, behar adina datu eta xehetasun eman behar ditu ikasleak.

**OHARRA:** Latin-hiztegi batzuek gramatika-gehigarri bat izaten dute (deklinabideen eta adizkien taulekin, etab.). Ezinbestekoa da epaimahai guztietan irizpide bakarra izatea aipatu gehigarri horien erabilerari buruz: **zilegi** izango da aipatutako gramatika-gehigarria erabiltzea, dela hiztegiaren orrialdeetan dagoela, dela liburuxka solte gisa dagoela. Bestalde, nahi duenak **bi hiztegi** erabil ditzake batera: bat latina-gaztelania eta beste bat latina-euskara.